

# MIKROFONOTIK ESKEGITA

## UMETAKO AMETS IRUDIAK

### 1. Sakristau zaharraren txilibitua.

Txistua Txanbolinek asmau ei eban. Niri, ostera, sakristau zaharrak erakutsi eustan txistua joten, mutikotxotan, artzain ebilen bitartean. 'Fiiit' jo eta Anbotok erantzun: 'Fiiit'.

– *Bajak zerbait Anboton, txistu-hotsari oihartzun egiteko!*

Eta halako baten, leizar adartxo bat moztu eta txilibitua egiten hasi zan: azala, kutxilo kirtenaz jo-jo egin... eta arrabete inguruko azal-tutua atara eban oso-osorik. Adar biluztuari haize-bideak egin ostean, azal-tutua sartu eta putz eginez...'fu-fiiit' entzun zan, eta Anbotok erantzun: 'fu-fiiit', 'fu-fiiit'...

– *Bajak zerbait Anboton, hatxa adurretan jarteko!*

Anbotora begiratu eta goiz-eguzkiaren argitasunera ditziratsu ikusten zan hatx-labarra.

–*Ekatzu neuri txilibitu hori.*

–*Sorgin-txilibitua dok hau, mutiko, Anboton, aharitoaren arranari txilin-hots zolia moteldu ez dakion!*

Ez neutsan ezer ulertu. Baina nagusitan jakin neban Txanbolinek, lehenengo txilibitua jotzen ikasi ebala, eta handik gerora asmau ebala txistua.

Jose Antoniok ekarri eban Txanbolin Arrazolará, guri dantzarako txistua joteko, Jose Antonio bera dantza-irakasle gendula. Gerora Aroma etorten izan jakun Durangotik.

Eta holan joan ginan, dantzari-dantza, Ibarruriraino, Txomin Artetxeri omen egiten, guardia zibilez inguraturik, txistu-hotsean, behin oinez eta hurrengoan trenez, autobusean joatea galarazo euskuelako.

Harrezkero, beti maite izan dot txistuaren hots dantzaria, Anboto adurretan jarten daualako, eta Mari liluratuta ixten daualako.

Baina nik, sakristau zaharraren txilibitua dot maiteen, leizar-adartxo bategaz eginda dagoalako.

### 2. Arto-ren irakatsia.

Umetan, sei urte egin arte ez gintzazan elizondora jaisten, ez eskolara joaten.

Auzunea zan gure mundu osoa: gelan jaio (Iberreko Maria emaginaren eskutik) eta ezkaratzera, ezkaratzetik etartera, etartetik sastaira eta sastaitik zelaira, auzoko beste umeekin olgetan egiten... eta sei urte egitean, eskolara, bildur-ikaraka. Elizondoko lagunartean sartzeko,

burrukan egin behar izaten genduan, azkenengo sartutako mutikoaren aurka, nagusiek halan behartuta... Burrukaldia unerik gorienera heltzen zanean:

–'Eeee, moxo, geldí, nahikoa dok', agintzen euskuen. Hortik gora, taldearen babes osoa eukiko genduan.

Sei urtegaz ez genkian erderarik, euskera hutsean bizi ginan eta. Baina, ez euskuen erakusten euskeraz irakurten eta idazten, etxean be ez, eta eskolan gitxiago. Horretan, Elorrioko *Arto* sargento frankista gogorrak eta musulman zintzoak jarri ninduan alfabetatze bidean, Jose Antoniok Arrazolako eleizpean euskera-irakasbidetzat jarritako harbelaren aurrean: -  
'A-mo-a-ve, xavá, qué pone ahí?'. Eta nik, esku-marraztuaren pareko hitza irakurri:

'A-tza-ma-rrak'.

Arrazolako eleizpeko harbel horixe izan zan geroko *Kili-kili* aldizkariaren hazia.

### 3. Atlantic irratigailua.

Mikrofonotik eskegita egin dot bizibide osoa. Eta bide horretara eroan ninduen lehenengo pausoa, Atlantic markako irratigailu bat izan zan. Horrexek ekarri ebazan lehen kanpo-haizeak Agarre baserrira. Hain zan polita! Baina erderaz baino ez ekian. Halan be, ezkaratzeko arasa-apalean iraun eban urte luzez, eta azkenean euskeraz be ikasi eban. Gure ama Mariak, atxurra soloan jaurti eta egunero entzungo ebazan Bilbo Herri Irratian bere semearen *Txakurzuloko Kronikak* eta zapatuetan *Kili Irratia*.

### 4. Kanpantorreko altabozak.

Nire umetako gogoramenik gozoena, Arrazolako abadetxekoa da. Jose Antoniok, lau altaboz-turuta jarri ebazan kanpantorrean, lau haizeetara begira. Arrazolako baserri guztietara heltzen ziran, garbi-garbi heldu be, Vivaldiren *Lau Urtaroak*, sasoirik-sasoi, zein Guridiren *Euskal Melodiak*. Deiak eta oharrak be zabaltzen ziran hango mikrofonotik, eta esatarietako bat ni neu nintzan, ondo esan gura eta ezinka. Ai, zenbat ahalegin Jose Antoniok, bere oharrak gure ahoan jarten:

–*Ea, Jesus, esan buruz: Etxe hau handia da.*

Eta nik:

–*Hori etxioi haundixe da.*

–*Ez horrela ez!. Etxe hau handia da, baino.*

–*Hori ba, hori etxioi haundixe dala, Jaune!*

Zelan jakin nik, zein dan akatsa eta zein araua! Ala ustezko akatsa ete zan, ba, araua?

## 5. Hitzak irudietan.

Nagusitan, berba irudimentsuak sortzea izan da nire ardurarik haundiena. Edo beste era batera esanda: irudi esanguratsuak sortzea. Eta burulan horretan beti izan dot jarrera garbi hau: egia osoz jokatzea. Ea, mordoilokeria bat esanda hobeto azaltzen dodan: 'Esan gurako egia ez da egi izango, entzuleak, dinotsaguna sinisten ez badeusku; eta ezin izango deusku sinistu, zer dinotsagun ez badaki; eta ezin izango dau jakin zer dinotsagun, ulertzen ez badeusku; eta ez deusku ulertuko, gauza interesgarririk esaten ez badeutsagu; eta ez deutsagu gauza interesgarririk esango, irudimen haundiz, jatortasunez eta freskotasunez esaten ez badakigu'.

Beste alde batetik, alperrekoa da ondo landutako testua, bizia ta irudi-sortzailea, neurrian neurrikoa... gero, kaxkar esanda badago, entzulearen belarrietara oztupoz beterik helduko da eta. Esateko ereak, kontakerak, irudi-sortzaile izan behar dau. Badirudi ohar honek ez daukala aparteko zerik, baina horrexek egiten dau lana eder, entzungarri, berezko eta ulergarri.

Adibide bat jarriko dot. Erderazko pelikula bat euskerara ekarten nenbilen, *Planta 4ª*, gero bikoizteko. Gaztetxo talde baten gorabeherak aitutzen dira, hospitale bateko Laugarren Solairuan. Gaixorik dagoz danak, hazurretako minbiziak jota. Baina egunero asmatzen dabe okerkeriatxoren bat, bizi-pozari eusteko. Behin, igarkizunetara jolasten ebilzan: esakera baten lehen zatia esan, eta ea nork dakien amaitzen. Erderaz honela zan: '*Tiran más dos tetas... (erizain poxpolinaren bularrarteak ikusten zala)... que dos carretas*'. Nik, euskeraz, atzekoz-aurrera egin behar izan neban, baina irudiarekin batera-batera etorren: '*Indar handia idiak... (erizainaren bularrartera begira)... handiagoa titiak*'.

Horixe da ahotsez sortutako irudiaren liluramena.

## 6. Txanton eta Piper.

Zenbat barre-algara, gazte ginela, ume artean, txokolate usainean, Kili-kili jaietan, 'txantonkeriak' eta 'piperkeriak' egiten, herriz-herri:

–*Hi, Piper, zer dok han zeru izarratuan agiri dan talo zuri haundi biribila?*

–*Etxakiat, Txanton, ni ez nok herri honetakoa!*

Eta umeek barre, eta gurasoek be barre. Izan be, aukerako hitzak irudikatuko deusku izendatu gura doguna, eta esakera bizigarriek emongo deuskue munduko dinamikaren barri, aurpegia txokolatez txipristinduta euki arren.

–*Hi, Piper, garbitu eizak horreek belarri zikinok!*

–*Ondino entzuten juat, Txanton!*

Hitzen arteko joko-dantzak oihartzunduko dau esanahiaren egituraketa egokia.

## 7. Kili Irratia.

Kili-kiliren ekimenari ahotsa gehitu behar jakola eta, Kili Irratia asmatu genduan, eta barriro behan nintzan mikrofonotik eskegita, orduko Bilbo Herri Irratian, Kili-kiliren ekintzen barri emonaz, eta umeen parte-hartze zuzena hauspotuaz. Ondo esanda dator 'Kili-kili Erakusketa' honetako argitalpen txukunean, umeak zirala irratsaioko hazur eta mamin: *ipuin zein barregarrikeriak esan-guraka, aho-korapiloak esan-ezinka, behin barregarri-behin negargarri... etxekeoen eta auzokeen pozgarri*. Zapatuero, han etorten ziran ume-taldeak Bilbo zulora Piliren laguntzaz, Agurtzaneren eskutik, Maiteren edota Milaren esanetara, irratiko txokotxo baten ordubete igarotera, gero sariz beterik etxera itzultzeko. Edo bestela, irratia bera joango zan herrietara: Aulestira, Lekeitiora... eta nora ez, herriko plazan, ume arteko zurrumbiloon murgiltzeko, beti 'teila bako ikastolan', irratsaioaren hasierako kantuek dinoan lez.

Bizi nazen artean ez dot ahaztuko umetxo harein irribarrea, xalotasuna eta bapatekotasuna.

## 8. Telebista.

Handik gerora, Euskal Telebista be sortu zan, eta han nintzan, barriro be, mikrofonoaren aurrean. Idaztera baino esatera ohituago nengoan, eta gatx egiten jatan, lehenengotan, 'euskera batu landuan' idatzitakoa ahoz esaten, eta gainera, irudira egokituta. Baina horixe zan, goitik zorrotz zainduta etorren agindua, eta men egin behar, ba...!

Gaur egun, gero ta sarriago azaldu behar izaten ditugu gauzak jente aurrean. Eta holakoetan, zein da sendoagoa, mamina ala itxurea?. 'Zer' esaten dan ala 'zelan' esaten dan? Inoz, mamin gitxiko baina azal ederreko hizlariak ataraten dira gailen, ahozko jardunean bikainak diralako. Lanbide askotan, inoz baino beharrezkoagoa da komunikazino-gaitasunaren jabe izatea. Zoritxarrez, ahozkotasanaren kaltetan, testu idatziak hartzen dau itzalik haundiena, betiko iruzurrean jausirik, hau da: idatzia, ahozkoa baino goragokoa dala eta eredu izan behar dauela ondo hitz egiteko; gramatikak arautu behar dauela, beren-beregi, zelan hitz egin eta zelan idatzi egoki; hizkuntzaren bilakaerak eta aldakien sorrera ugariak galmendia lekarkiela, testu zaharren eredu klasikotik aldenduz doazelako eta abar. Pentsamolde horren aurrean, nik zera esango neuke: inoz aldatzen ez dan hizkuntza kanposantuan baino ez dala erabiliko. Argi dago, garbizaletasunetik itxikeriarako bidean esparru zabala dagoala. Tamalez, komunikazino-trebakuntza ez da ia inon lantzen, irakasleak prestatzeko eskoletan be ez. Giza-jarduera asko, etenbako komunikazino-ariketak dira. Auzia, betiko lez, orekan dago: maminak ez deutso azpia jan behar azalari, eta azalak ez dau ardura barik jokatu behar maminarekin. Gakoa, ondo hitz egitea da, besteak erixkide egiteko. Komunikazinoan, beraz, osagai nagusi bi dagoz: zer esana izan (mamina), eta huts askorik ez egin azaltzerakoan. Garbizale batzuek, 'txukuntasuna' darabile 'hiztun onaren' ispilu. Garbizaleak, hiztunak zaindu nahi ditu, taldearen artzaina bera dalakoan. Baina askotan, ardiek artzainak baino sen zuhurragoa daukie. Ardiak badaki ze bedar mota behar dauan, zein dauan gogokoen eta zeinek egiten deutzan tripetako mina. Artzainak berak baino hobeto. Eta jente aurrean, edo mikrofonoan, lekuan-lekuko euskerea erabili ezean, hizkuntza estandarra erabili beharko da, onartuena. Eta horretan, argi ibili behar dogu, oreka galtzeko arriskua daukagu eta.

Nik, makina bat mikrofono erabili ditut, behin egi-itxurako guzurak esaten, behin guzur-itxurako egiak. Eta beti, goiburu baten haritik: gure mundua euskeraz sortzeko. Izan be, euskeraz asmatzeko, bizitzeko, maitatzeko, saltzeko zein erosteko... gai ez bagara, gureak egin dau.

Jesus Eguzkiza *Eguzki*

Bilbon, 2016ko apirilaren 21ean